

Parapente

Hodeietan egotea kirol bihurtzen

Aurreko asteburuan Haize Jaialdia zen ospatzekoa Orion, Ostargi Parapente Taldeak antolatuta, baina euriak zapuztu zuen jaialdia; igande arratsaldean hegana egin zuten batzu-batzuk, baina larunbat arratsaldean eta igande goizean ez zen aukera askorik izan. Jaialdi horren aitzakian, hala ere, kirol hau gertuagotik ezagutzeko baliatu dugu aukera

Nola hasi?

■ Parapentean hasteko, Euskal Herrian dauden talderen batera hurbiltzea duzue onena. Talde horietako eskolek hainbat ikastaro antolatzen dituzte urtean zehar. Ikastaroa amaitu artean ikaslea da bat, eta bitarte horretan ezin du bere kabuz hegana egin. Ikastaroa amaitutakoan, ikasle aurreratua izena ematen zaie parapentezaleei, eta orduan ere gidariaren zaintzapean egin behar du hegana, hainbat ordu pilotu arte. Airean ordu horiek pilotutakoan parapente eskolako azterketa teoriko eta praktikoa gaindutu behar da, eta behin azterketa gaindituta eta pilotu titulua eskuetan, orduan bai, batek norbere kasa egin dezake hegana. Pilotu titulua eskuetan, hegana egiteko oinarritzko ekipoak (parapentea, aulkia, kaskoak eta babesak) 350.000 pezeta (14.000 libera) balio du, batez beste.

BAIZA PARAPENTE TALDEA Sagarmin, 8-Bajo 14 Agurain - 01200 Araba
CORMORAN TALDEA Sierras Alavesas, 16-1º-I Gasteiz - 01002 Araba
CLUB PARAPENTE ALAVES Trav. Tras Santiago, 4 2º-D Orduña - 48460 Bizkaia
LARRANO PARAPENTE TALDEA Montorroste, 1,4º Esk Elorrio - 48230 Bizkaia
IPARAIR PARAPENTE TALDEA Antonio Fernandez K., 17, 4º-B Basauri - 48970 Bizkaia
C.D. AIRETIK SOPELA Avda. Arriatera, 69, 1º-Dcha Sopela - 48600 Bizkaia
AMASAIN DELTA PARAPENTE Guadalupeko Ama, 10-Dcha Hondarribia - 20280 Gipuzkoa
CLUB OSTARGI PARAPENTE Boulevard, 11 5º-B Donostia - 20003 Gipuzkoa
HODEI ARTEAN Axular, 2 A, 2º - C Zarautz - 20800 Gipuzkoa
SORGINAK PARAPENTE ELKARTEA Elcano Kalea, 39 2º-B Getaria - 20808 Gipuzkoa
EL AVISPERO DE DONOSTIA PARAPENTE TALDEA San Antonio, 16-1º Donostia - 20016
ALAS DE LEYRE TALDEA Info: 948-16 20 83

Ramon Olasagasti / Orio

Hegana egitea izan da betidanik gizakiaren ametsik handienetakoa, baina grabitatearen legeak ederki izorratu izan gaitu mende mende. Egun badira moduak lege horri itzuri egin eta hegaztiei konpetentzia desleiala egiteko; dudarik gabe merkeena, arinena eta esker onekoena, parapentea.

Frantzia du jatorria parapenteak: Jean Claude Betemps, Andre Bohn eta Gerard Bosson Pertruiset paraxutismo lehiaketarako (lur hartzako prezisioa) prestatzen ari zirela, NASAk 60ko hamarkadan beste eginkizun batzuetarako asmatutako kanpaia edo oihal karratua frogatu zuten. Paraxutekin eginiko jauzien aldean, kanpaia egiaz hegana egiteko aukera ematen zuela ikusi zuten hiru frantziarrek. Artean, ordea, parapentea jaiotzeko zegoen, paraxutaren anaia txiki eta ezezaguna baino ez zen. 1982an, Roger Fillon Chamonixko goimendiko gidariak Aiguille Verte, Aiguille du Midi eta Mont Blancetik egin zuen jauzi. Hiru salto horiek jotzen dira parapentearekin eginiko lehen hegaldi gisa, paraxutismotik bereizita.

Paraxutismotik eratorrita, baina, aldi berean, mendiari lotuta jaio zen parapentea: mendiko nekeak eta arriskuak erdira

jaiste aldera, gailurretatik hegana jaisteko aukera hori asmakizun eta pagotxa itzela iruditu zitzaion batzuei eta halaxe hartu zuen indar parapenteak. Euskal Herrian noiz sartu zen zail da zehaztea, baina Mikel Agirrebeitia Euskal Herriko Aire Kirolen Federazioko buruaren arabera, 15 bat urte izango dira Irungo Bidasoa eskolako en eskutik lehen hegaldiak egin zirela. *Boom* moduko bat etorri zen gero, eta ondorioz, mendizaleez aparte, bestelako jendea ere hasi zen kirol honetara hurbiltzen. Gaur egun, dozena bat talde eta 400 federatu inguru daude Hego Euskal Herrian.

Arriskuko kirolen artean dago parapentea, eta Mikel Agirrebeitia federazioburua ere ados dago: «Airean zauden une bereetik dago arriskua, baina niri ez zait iruditzen kirol arriskutsua. Parapenteak, egun, oso seguruak dira, eta zale batek eskolan ondo ikasten badu, eta ikasitakoa errespetatzen badu, nekez izango du ezustekorik. Arriskutsua pilotua da, parapentea bera baino», dio Agirrebeitiak. Arriskurik handienak lurretik gertuen izaten dira, aireratzeko edo lur hartzeko garaian. Airean, gero eta altuera handiagoa izan, orduan eta seguruago. Adibidez, haize bolada batek parapentea ixten badu, gaur egungo parapenteak ia bakarrik irekitzen dira berriro.